

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, gizabanako bakoitzak egin behar dituen ezinbesteko jarduerak eta betebeharrak zehaztuko ditugu, zerbitzua era egokian bideratzeko eta dena behar den bezala antolatuta edukitzeko.

Hasteko, gure proiektuaren publizitateaz Gorka arduratuko da. Gure helburu nagusia geroz eta jende gehiagok gure zerbitzuaren berri izatea da, horregatik, proiektuaren promozioak garrantzi handia edukiko du. Gorkak sare sozialetan, Facebook eta Instagramen esate baterako, gure egitasmoa azalduko du, eta egunero argazkiak eta informazioa argitaratuko ditu. Era berean, bezeroen zalantzak erantzungo ditu, gmailak eta deiak ihardetsiz. Azkenik, bere ardurapean egongo da webgunea, hau da, bere beste betebeharrak bat webgunea sortzea izango da, eta bertan behar diren argazkiak eta informazioa argitaratzea.



Bigarrenik, diruari dagokionez, kontuak Jonek eramango ditu. Beraz, enpresaren finantziarioaren arduraduna izango da. Gure zerbitzuaren kontabilitatea eramango du, eta bere ezinbesteko betebeharrak diru sarrerak iristen direla ziurtatzea eta zer gastu edukiko ditugun kalkulatzeko izango da. Horrela, zerbitzua bideragarria dela egiaztatuko dugu, porrot ez egiteko. Gainera, aipatzekoa da gure zerbitzua ez dela dohakoia izango, beraz, bere ardura ere izango da, musukoak salduz irabazten dugun diru guztiaren zenbaketa eramatea.

Bestalde, Mikel arduratuko da makinaren antolamenduaz. Hasiera batean, zenbat makina beharko ditugun kalkulatuko ditu, eta behin kopurua dakigunean eskaera egingo du. Horretarako, lokal bat alokatuko dugu makinak iristen diren einetan bertan gordetzen joateko. Gainera, hasierako musukoak eskatzeaz arduratuko da, eta hauek ere saldu einetan, eskaera gehiago egitea izango da bere eginkizunetako bat. Bitartean, Mikelek zenbait langile kontratatuko ditu, makinak eta musukoak poliki-poliki Goierriko herrialde desberdinetara garraiatzeko. Horrez gain, lokalean makinak eta kaxak alde batetik bestera eramateko, beharko dugun materiala erostez arduratuko da, furgonetak, besteak beste.

Bukatzeko, beste enpresekin aliantzak sortzerako garaian, harremanetan jarriko dena Ander izango da. Bere eginbeharrak gure zerbitzurako ezinbestekoak diren enpresekin denbora guztian kontaktuan egotea izango da, eta haiekin akordioetara iristea. Denon artean erabakiak hartuko ditugu, baina, gero, Ander enpresetara joango da buruzagiekin mintzatzen, eta adostasun batera iristera, beti ere gure desirak betetzen direla ziurtatuz. Gainera, etorkizunean beste aliantzaren bat sortu nahi izanez gero, bera arduratuko da. Enpresak diru sarrerak izan ditzan eta aurrera atera dadin, bera arduratuko da



enpresaren beharrezko diru horretara, zeina musukoen salmenten eraginez sartuko diren gehienbat sarrerak enpresara.